

TOMATE ANTIOXIDATZAILEAK

Lehenengo eta behin, galderak eta erantzun posibleak irakurri. Ondoren, 3 aldiz entzun behar duzu Tomate transgenikoak izeneko elkarrizketa. Elkarrizketa entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzenak.

1. Tomate horiek zer dute berezi?
 - A. Antioxidatzaile gehiago dute.
 - B. Antioxidatzaile hobeak dituzte
 - C. Askoz goxoagoak dira
 - D. Osasungarriagoak dira

2. Tomate horien kolorea nolakoa da?
 - A. Azala iluna da, mamia argia.
 - B. Berenjenaren mamiaren antzekoa.
 - C. Mamia ere morea da, berenjanaren azalaren antzeko.
 - D. Mamia morea dute, ez, ordea, azala.

3. Tomate hauen geneak beste landare batzuek dituzten geneen antzekoak al dira?
 - A. Antz gehiago dute berenjenekin.
 - B. Bai masusta eta ahabiek dituzten geneen antzekoak dira.
 - C. Kolore antzekoa da, baina geneak ez.
 - D. Masustarekin sortutako hibridoak dira tomate hauek.

4. Tomate hauek minbiziari aurre egiteko balio dezakete. Zein da, ordea, arazoa?
 - A. Oraindik ez dela baimenik eman ekoipen industrialara egieko.
 - B. Oraindik ez dela inolako probarik egin.
 - C. Oraindik oso goiz dela probak egiten hasteko
 - D. Oraingoz probak animaliekin bakarrik egin direla.

5. Minbizia duten sagu hauek tomate hauek emandakoan zer gertatu da?
- A. 12. hilabetean hil dira.
 - B. 6 hilabetetan minbizia garatu dute.
 - C. Bizi iraupena luzatu egin zaie.
 - D. Minbizia sendatu egin zaie.
6. Pertsonentzat baliagarri ote den jakiteko hiru fasetako esperimentuak egin behar dira. Zein da lehena?
- A. Gaixo terminalekin egiten dira lehen frogak.
 - B. Gaixotasuna duten pertsonei ea onurarik ekartzen dien aztertzen da.
 - C. Lehenik pertsona osasuntsuei ematen zaie.
 - D. Lehenik toxikotasuna aztertzen da.
7. Zein da bigarren fasea?
- A. Biziraupena luzatzen den ikustea.
 - B. Gaixotasuna duten pertsonei ea onurarik ekartzen dien aztertzen da.
 - C. Toxikotasuna aztertzen da.
 - D. B eta C zuzenak dira.
8. Farmazietan salgai egoteko...
- A. Protokolo zailak eta garestiak pasatu behar dira.
 - B. Ez da beharrezkoa hiru faseak pasatzea.
 - C. Diru asko jartzen duen enpresa farmazeutikoa behar da.
 - D. A eta C zuzenak dira.
9. Tomate hau onartuko balitz zein sailetan egongo litzateke?
- A. Ardo beltzaren sailean legoke.
 - B. Jada saltzen diren beste janari funtzionalen esparruan kokatuko litzateke.
 - C. Janari antioxidatzaileentzat sail berri bat egiekotan dira.
 - D. Oraingoz ez dago horrelako janariak sailkatzeko modurik.

10. Tomate transgeniko hauek...
- A. Kolesterolaren maila odolean jeisten laguntzen dute ere.
 - B. Daukazun minbizia aurrera ez joaten laguntzen dute.
 - C. B eta D zuzenak dira.
 - D. Minbizia prebenitzen laguntzen dute.